

Artearen Oinarriak II

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



**Unibertsitatera
Sartzeko Ebaluazioa**

UPV/EHU

2017



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2017ko EKAINA

ARTEAREN OINARRIAK II

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2017

FUNDAMENTOS DEL ARTE II

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Proba idatzi honek 3 galdera ditu, eta gehienez 90 minutuan egin behar da.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Esta prueba escrita se compone de 3 preguntas y debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.

2017



A AUKERA

1. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egizu irudi honen iruzkina. Nahitaezkoa da proposatzen den gidoia eredu gisa erabiltzea.

Gidoia:

1. Azterketa formala: aztertu obran erabiltzen den hizkuntza plastikoa (kolorea, bolumena, konposizioa, etab.).
2. Interpretatu nola erabili dituen egileak baliabide plastiko horiek obraren sorkuntza globalean.
3. Identifikatu obraren gaia, eta saiatu haren esanahian sakontzen.
4. Erlazionatu artelana dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, azaldu zein diren obran adieraziak ikusten dituzun mugimenduaren ezaugarriak, eta saiatu zehazten noiz egin zen.





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2017ko EKAINA

ARTEAREN OINARRIAK II


EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2017

FUNDAMENTOS DEL ARTE II

2. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): egizu gaiaren garapen teoriko bat. Zenbait artelan aurkezten dira, garapen teoriko horretarako oinarri gisa balio dezaketenak. Diskurtsoan haiei erreferentzia egitea baloratuko da.

Gai-proposamena: azaldu inpresionismoaren garapena.





3. GALDERA (Proba idatziaren % 20 balio du): jarraian, testu zati bat proposatzen da. Irakurri, laburbildu haren ideiarik garrantzitsuenak eta erlazionatu arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin, zergatia argudiatuz.

Eta orain, borroka itzel honetako atsedenaldi labur batean, jendetzaren artetik irteten gara pintura berritzeko dugun programa zehaztasun teknikoz azaltzeko. Programa horren erakustaldi liluragarria izan da Milango Erakusketa Futurista. Egia behar dugu gero eta gehiago, eta behar hori jada ez da asetzen orain arte forma eta kolorea ulertu izan diren moduaren bidez.

Mihisean erreproduzituko dugun keinua ez da izango dinamismo unibertsalaren une finko bat. Sentsazio berez dinamikoa izango da (betikotua), ez besterik. Zalantzarik gabe, higidura da dena, aurrera doa dena, biziki aldatzen ari da dena.

Profil bat inoiz ez dago geldirik gure begien aurrean; aitzitik, etengabe agertzen eta desagertzen da. Irudi batek erretinan irauten duen denboraren arabera, higitzen ari diren objektuak bere buruaz biderkatzen dira etengabe; bere lasterketa eroan, forma aldatu egiten da bibrazio laster gisa.

Pintura futurista: Manifestu teknikoa, 1910.




B AUKERA

1. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egizu irudi honen iruzkina. Nahitaezkoa da proposatzen den gidoia eredu gisa erabiltzea.

Gidoia:

1. Azterketa formala: aztertu obran erabiltzen den hizkuntza plastikoa (kolorea, bolumena, konposizioa, etab.).
2. Interpretatu nola erabili dituen egileak baliabide plastiko horiek obraren sorkuntza globalean.
3. Identifikatu obraren gaia, eta saiatu haren esanahian sakontzen.
4. Erlazionatu artelana dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, azaldu zein diren obran adieraziak ikusten dituzun mugimenduaren ezaugarriak eta saiatu zehazten noiz egin zen.





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2017ko EKAINA

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2017

ARTEAREN OINARRIAK II

FUNDAMENTOS DEL ARTE II

2. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): egizu den gaiaren garapen teoriko bat. Zenbait artelan aurkezten dira, garapen teoriko horretarako oinarri gisa balio dezaketenak. Diskurtsoan haiei erreferentzia egitea baloratuko da.

Gai-proposamena: azaldu zer izan zen surrealismoa eta zein izan ziren haren bide plastiko nagusiak.





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2017ko EKAINA

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2017

ARTEAREN OINARRIAK II

FUNDAMENTOS DEL ARTE II

3. GALDERA (Proba idatziaren % 20 balio du): jarraian, testu zati bat proposatzen da. Irakurri, laburbildu haren ideiarik garrantzitsuenak eta erlazionatu arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin, zergatia argudiatuz.

Gorde zaitetz erudizio hotzetik eta arrazoiketa arinetatik, bihotza akabatzen baitute, eta, bihotza eta gizakiaren adorea hil diren tokian, ezin da bizi artea.

Atxiki zure barnean zentzu purua, haurren zentzua, eta jarraitu zure barnearen ahotsari, hura baita jainkotiarra gugan eta ez baikaitu errakuntzara bideratzen.

Zure adorea bultzada oro sagaratu behar duzu, sakratutzat hartu behar duzu zure gupida-susmo oro, gure baitako artea baita. Gogoberotasunaren orduan, forma ikusgai bihurtzen da, eta forma hori margolan bat da.

Inork ez du bere egitekoan ugaldtu behar besteren baliabideekin eta bereak lurperatu! Zure talentua besterik ez da zure barnean egiazko eta eder gisa, noble eta on gisa ezagutzen duzuna.

Zeure begiekin ikusi behar duzu eta, objektuak nola agertzen zaizkizun, halaxe erreproduzitu, zehaztasunez. Erreproduzitu gauzak margolanen haiek zugar eragiten duten moduan!

Caspar David Friedrich, datarik gabea. *Arteaz eta espiritu artistikoaz* (laburpena)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ARTEAREN OINARRIAK II

Ebaluazio-irizpide orokorrak

1. Eskatzen zaionari egokitu egiten da eta gaien zentratzen da.
2. Zuzentasunez eta argitasunez espresatzen da, eta testu koherente eta egituratu bat egiteko gai da.
3. Bere baieztapenak argudiatu egiten ditu.
4. Gaiaren hiztegi espezifikoa erabiltzen du.

Ebaluazio-irizpide espezifikoak

Artelan baten iruzkina: 4 puntu	
<ul style="list-style-type: none">• Komentatu beharreko artelanean erabiltzen diren errekurtsu plastikoak identifikatu, aztertu eta koherenteki justifikatzen ditu eta artistak nola erabiltzen dituen azaltzen du.• Artelanaren errekurtsu plastikoak eta bere esanahiaren arteko erlazioak agerian jartzen ditu.	2 puntu
<ul style="list-style-type: none">• Aztertu beharreko artelana bere egilea edo sailkatu egiten den mugimendu edo garaiarekin identifikatzen du eta beraien estiloaren bereizgarriak ezagutzen ditu.• Artelana eta historiografikoki sailkatzen den mugimendu edo estiloaren arteko loturak azaltzen ditu: obran ikusgai dauden mugimenduaren ezaugarriak, obra bere sorkuntza garai eta espazioan kokatzen du...	2 puntu

Gai-proposamen baten garapena: 4 puntu	
<ul style="list-style-type: none">• Proposatzen zaion gaiaren aspektu garrantzitsuenak identifikatzen ditu.• Gaiaren inguruko beste aspektu esanguratsu edo nabarmenak ezagutzen ditu: kronologia, garatu zen lekua, artista bereizgarrienak...	2 puntu



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

<ul style="list-style-type: none">• Azaltzen duen mugimendua, garai edo artistak eta beste estilo, garai edo artisten arteko erlazioak bilatzen ditu.• Bere diskurtsoan koherenteki aipatzen ditu erreferentziatzat eman zaizkion irudiak.	2 puntu
---	---------

Testu-komentario: 2 puntu	
<ul style="list-style-type: none">• Testuaren gaia eta ideei nagusiak identifikatzen ditu.• Testuko informazio garrantzitsuena laburbiltzeko gai da.	Puntu 1
<ul style="list-style-type: none">• Testuaren ideiak berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduarekin harremanetan jartzen ditu.• Bere ezagutzetan oinarritutako irizpide koherenteak erabiltzen ditu testuaren edukiak eta berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduaren arteko loturak argudiatzeko.	Puntu 1